

2023

# Prestakuntza- Jardueren

**PROGRAMA**

IRAILA - ABENDUA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

# PRESTAKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak 2023ko bigarren seihilekorako prestakuntza-proposamen berri hau aurkeztu du. Prestakuntza-proposamenaren bidez, denboran zehar formatu eta eduki aldetik bidali dizkiguzuen iradokizunak jasotzen ahalegindu gara; baita, plangintza egin aurretik urtero bidaltzen dizuegun galdetegiaren bidez jasotakoak ere.

Formatuari dagokionez, gero eta pertsona gehiagok eskatzen digute etengabeko prestakuntza, askotarikoa eta malgua, norberaren egoerara egokitu ahal izateko.

Edukiari dagokionean, berriz, seihileko honetan prestakuntza-eskaintzan honako hauek izango ditugu: bi ikastaro presentzial, bi tailer, bi kafe-tertulia eta bi *online* mintegi edo webinar.

Prestakuntza-eskaintza horretaz gain, gogorarazi nahi dugu prestakuntza osa daitekeela Gizarte Langintzako beste Elkargo Profesional batzuek eta Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak antolatutako beste prestakuntza-proposamen batzuen bitartez. Horiek sareen eta/edo asteko buletinaren bidez zabaltzen ditugu.

## 1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira. Seihileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“LIDERGO ERALDATZAILEA: ZAINZATIK GIDATZEKO BOTEREA”**  
ARETÉ ACTIVA  
12 ordu 6 hilabetetan (2 ordu/hil).  
Aurrez aurrekoa.  
2023ko IRAILA-2024ko OTSAILA.
- **“GIZARTE-LANA TALDEEKIN”**  
CRISTINA LÓPES  
12 ordu 5 saioretan.  
Aurrez aurrekoa.  
URRIA-AZAROA.

## 2. TAILERRAK

Jarduera hauetan, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak emango ditugu. Seihileko honetan, bi tailer planifikatu ditugu:

- **“IPIJINEN MAGIA” TAILERRA, AKONPAINAMENDU EMOZIONALERAKO TRESNA**  
NEREA ZUBELDIA  
3 ordu (Goizez edo arratsaldean).  
Aurrez aurrekoa.  
NGLEOren egoitza  
IRAILAREN 27an edo URRIAREN 10ean.
- **“ZAINZA PROFESIONALERAKO ERREMINTAK, IKUSPEGI FEMINISTA BATETIK”**  
MARIEL QUERA MORALES  
3 ordu.  
Aurrez aurrekoa.  
NGLEOren egoitza  
Urriaren 23an.

## 3. KAFÉ-SOLASALDIA

Elkargokideen artean partekatze esparruak sustatzea garrantzitsua da. Praktikak eta gaiak partekatzea beste pertsonak inspiratzeko. 2023. urterako aukeratu ditugunak hauexek dira:

- **NAZIOARTEKO TRUKE PROFESIONALERAKO PROGRAMA (CIF)**  
MARIA DEL MAR ASTIZ LACUNZA  
Aurrez aurrekoa.  
URRIAK 4.
- **“ETIKA GIZARTE LANGINTZAN”**  
FRAN IDARETA  
Aurrez aurrekoa.  
AZAROA 28.

## 4. ONLINE MINTEGIA / WEBINARRA

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Seihileko honetarako planteatu ditugun online mintegiak hauek dira:

- **“OPOSIZIO BAT LANTZEKO KONTUAN IZAN BEHARREKO GAKOAK”**  
ELENA TORRES.  
Oposita Akademia.  
IRAILAK 20.
- **“GIZARTE-LANA GIZARTE SEGURANTZAREKIN ELKARLANA EGITEN DUTEN MUTUETAN”**  
BEGOÑA LOPEZ AZCARATE. Nafarroako FREMAPeko gizarte-langilea.  
MAMEN MORENO CASTILLO. FREMAPeko gizarte-langilea.  
URRIAK 17.

(\*) OHAR ARGIGARRIAK

# IKASTAROAK

## 1

“Lidergo eraldatzailea: zaintzatik gidatzeko boterea”

ARETÉ ACTIVA

**AURREZ AURREKOA**

**12 ORDU** 6 hilabetetan

### TOKIA:

NGLEOren egoitza. Iruñea

### TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile (<14)

**DATAK:** 2023ko IRAILAren 28an hasi eta 2024ko OTSAILAren 29an amaituko da. (2 orduko 6 saio hilean) Hilabeteko azken ostegunak.

### IZENA EMATEKO EPEA:

2023ko irailak 18

### PREZIOA:

150 € Nafarroako Elkargoan langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

175 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenak).

225 € Gainerako pertsonentzat.



Lidergo transformazionalako eta taldeak garatzeko programaren prestakuntzaren helburua da “klik” egitea erakundeetako erdiko agintarien eta erantzukizuna duten pertsonen artean. Horretarako, prestakuntza praktiko eta bizipenezko hau eskaintzen da, kontzientzia eta erantzukizun handiagoa hartuta, beren baliabide-iturriarekin konektatu eta benetako eraldaketa egin ahal izateko, egungo egoeratik nahi den egoerara bitarteko bidea burutze aldera. Ikuspegia partekatzen duten liderrak, inspiratzen dutenak, taldea motibatzen dutenak eta batez ere beren segurtasun-eremutik irteteko

prest daudenak. Liderren konpromisoa bilatzen dugu, elkarrizketa zailari heltzeko; izan ere, elkarrizketa horrek erakundearen kulturaren ezkutatuta dagoen guztia azalerratu egiten du, eraldaketa pertsonala aldaketa kultural eta sistemiko bihurtzeko aukera ematearekin batera.

Prestakuntza honen bitartez, zaintzaren bidez lider izateko estiloak, tresnak eta baliabideak jorratu eta sakondu nahi dira.

**+Info**  
**Izen-ematea**

# IKASTAROAK

## 2

### “Gizarte-lana Taldeekin”

CRISTINA LÓPES

#### AURREZ AURREKOA



**12 ORDU** (5 saio)

**TOKIA:**

NGLEOren egoitza. Iruñea

**TALDEA GUTXIENEZ:**

10 parte-hartzaile (<25)

**DATAK:** URRIAK 18 eta 25, asteazkena. AZAROK 8, 15 eta 22, asteazkena.

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 19:15era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2023ko urriak 9.

**PREZIOA:**

60 € Nafarroako Elkargoan Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

75 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenak).

100 € Gizarte Langintzako beste profesional batzuentzat.

Gizarte Lana Taldeekin, indibidualtasunaren mesederako, erabilerarik gabe geratzen joan den praktika bat da, baina berriro heldu dio jarduerari, eraginkortasun eta inpaktu handia eragiteagatik. Talde-jarduera espeziearen lehen mailako elementuekin bat egiteko modu bat da, gizakiak izaki gregariotzat hartzen dituen. Taldeak ezartzeko eta horrela erlazionatzeko joerak Gizarte Identitatearen Teoria bezalako elementuak ekarri ditu, eta horrek gure identitatea taldeetako kide izatean oinarritzen dela adierazten du. Talde-desberdintasunak eta elkarreragiteko modua gure gizartean dauden mekanismoak dira, eta gure bizimoduaren parte

dira. Taldeekiko esku-hartze sozialak hainbat alderdi sustatzeko aukera ematen du; hala nola, laguntzako sare sozialak sortzea, bizipen komunak partekatzea, trebetasun sozialak garatzea, elkarrekiko ikaskuntza sustatzea, argudio-komunikazioa eta baliozkotze pertsonala esperimentatzea,... Azken finean, banakako arreta alde batera utzi gabe, denbora-eraginkortasuna optimizatzen duen eta elkarreragiteko espazio positiboak eskaintzen dituen lan-eremua eskaintzen du.

**+Info**  
**Izen-ematea**

# TAILERRAK

## 1

**“Ipuinen magia” tailerra, akonpainamendu emozionalerako tresna gisa**

**NEREA ZUBELDIA**

**AURREZ AURREKOA**

**3 ORDU**

Tailer bera bi egunetan.

**TOKIA:**

NGLEOren egoitza. Iruñea

**TALDEA GUTXIENEZ:**

8 parte-hartzaile.

**DATAK:**


**IRAILAK 27**, asteazkena (16:30etik 19:30era). Izen-ematea irailaren 22ra bitarte.

**URRIAK 10**, asteartea (10:00etatik 13:00era). Izen-ematea urriaren 5era bitarte.

**PREZIOA:**

25 € Nafarroako Elkargoki-deentzat, aurre-elkargoki-deentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

40 € Gainerako pertsonentzat.



Tailer honen bitartez, hurrei eta helduei begira, ipuinek laguntza eta hezkuntza emozionalean, balioen transmisioan eta egoera konplexuak lantzerakoan (dolua, gizarte-harremanak, gatazkak, *bullynga*,...) eskaintzen dituzten aukera ugari ezagutzera eman nahi dira.

**+Info**

**Izen-ematea**

# TAILERRAK

## 2

### “Zaintza profesionalerako erremintak, ikuspegi feminista batetik”

MARIEL QUERA MORALES

#### AURREZ AURREKOA

3 ORDU

#### TOKIA:

NGLEOren egoitza. Iruñea

#### TALDEA GUTXIENEZ:

8 parte-hartzaile.

#### DATA:

URRIak 23, astelehena

#### ORDUTEGIA:

17:00etatik 20:00etara.

#### IZENA EMATEKO EPEA:

2023ko Urriak 16

#### PREZIOA:

30 € Nafarroako

Elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

50 € Gainerako

pertsonentzat.



Autozaintza oinarrizkoa da gure lanbiderako, bereziki ziurgabetasun-testuinguruaren ondoren, kontuan hartuta une askotan ziurgabetasun hori gurekin izan arren, azken urteetan auzoko bizilagun bilakatu dela.

Zaintzen ikasten dugu, baina askotan ahaztu egiten zaigu geure burua zaintzea, gu geu gure laneko tresna izanik. Gure esku-hartze profesionalean pertsonaren zentraltasuna sustatzen dugu, baina geure buruari erreparatuta, jartzen al dugu geure burua gure bizitzaren erdigunean?

Aldaketaren eta errebeldiaren lanbidea gara. Feminismoaren paradigmak genero-aginduak haustera gonbidatzen gaitu, eta, horrela, zaintzak kolektiboa izan behar du eta autozaintzak lehentasunezkoa. Testuinguru horretan, ikuspegi feminista duen autozaintzak erakusten digu emakume izateak nola

zeharkatzen gaituen eta emakumeak desabantaila-egoeratik abiatu eta zaintzaile unibertsalak garen gizarte batean nola kokatzen gaituen. Gizonek, aldiz, pribilegiozko egoeran bizi dira, baina maskulinitate hegemoniko baten eskakizunek markatzen duten egoeran, eta horrek bizitza-estilo ez osasungarri batera bultzatzen du (ausarkeriazko praktikak eta arrisku-jokabideak, dieta desegokiak, nork bere burua zaintzeko joera txikia, estresa, alkoholaren gehiegizko kontsumoa, tabakismoa, lehiakortasuna, arduragabekeria, analfabetismo emozionala, eta abar).

Autozaintza feministaren tresnak proposamen eta aukera bat dira gure potentzialtasunez nahiz geure burua banaka nahiz taldean zaintzeko ditugun aukerez jabetzeko.

#### +Info

#### Izen-ematea

# KAFE-SOLASALDIA

## 1

### Nazioarteko Truke Profesionalerako Programa (CIF)

MARIA DEL MAR ASTIZ  
LACUNZA

**AURREZ AURREKOA**

**1,5 ORDU**

**TOKIA:**

NGLEOren egoitza. Iruñea

**DATA:**

URRIAK 4, asteazkena

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 18:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

Urriak 2

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.



CIFerako funtsezko jarduera bat da Nazioarteko Truke Profesionalerako Programen (IPEP) prestakuntza eta eragiketa sustatzea munduko hainbat herrialdetan.

CIFen nazioarteko IPEPEk aukerak ematen dituzte truke profesional, kultural eta sozialerako; beraz, esperientzia paregabea da, eta arreta berezia eskaintzen zaio kulturekiko elkarrekiko errespetuari. IPEPEk herrialde anfitrioiko ingurune sozial eta kulturalari buruzko informazio praktikoa eta teorikoa konbinatzen dute.

IPEP aukera bat da gizarte-langintzarekin, gizarte-

ongizatearekin eta giza zerbitzuekin loturiko arloko / arloetako profesionalak, gazteek eta esperientzia dutenek beste herrialde bat bisitatzeko eta mundu osoko beste profesional batzuekin biltzeko.

Arratsalde honetan, CIF programa aurkeztuko da programa horretan parte hartutako gizarte-langile elkargokide baten esperientzia pertsonalaren bitartez.

<https://cifinternational.com/programs>

**+info**

**Izen-ematea**

# KAFE-SOLASALDIA

## 2

### “Etika Gizarte Langintzan”

FRAN IDARETA

**AURREZ AURREKOA**

**2 ORDU**

**TOKIA:**

NGLEOren egoitza. Iruñea

**DATA:**

AZAROAK 28, asteartea

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 18:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

Azaroak 26

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.



Egile desberdinen arabera, izaki moralak omen gara. Baina nola atera diezaiokegu etekina izaera horri? Hori buruz hitz egingo dugu kafe-solasaldia honetan.

**+info**

**Izen-ematea**



# Online MINTEGIAK / WEBINARRAK

## 1

“Oposizio bat lantzeko kontuan izan beharreko gakoak”

**ELENA TORRES**  
OPOSITA AKADEMIA

**ONLINE**  
**WEBEX PLATAFORMA**


**1,5 ORDU**

**DATA:**  
IRAILAK 20 astezkena

**ORDUTEGIA:**  
17.30tatik 19.00tara.

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
Irailak 17

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.



Online mintegi honen bidez, oposizio bati aurre egiten diogunean kontuan hartu beharreko gako garrantzitsuak jorratuko ditugu.

Gune honetan, esperientzia duten profesionalen eskutik, oposizio bat prestatzeko kontuan hartu nahi ditugun gai garrantzitsu guztiak partekatu ahal izango ditugu.

**+info**  
**Izen-ematea**

# MINTEGIAK/WEBINARRAK

## 2

**“Gizarte-lana Gizarte Segurantzarekin elkarlana egiten duten mutuetan”**

**BEGOÑA LÓPEZ AZCÁRATE**  
NAFARROAKO FREMAPEKO  
GIZARTE-LANGILEA

**MAMEN MORENO CASTILLO**  
FREMAPEKO GIZARTE-  
LANGILEA

**ONLINE**

**1,5 ORDU**

**DATA:**

URRIAK 17, asteartea

**ORDUTEGIA:**

17:30etik 19:00etara.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

Urriak 15

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.



Mintegi honen bitartez, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutuetan gizarte-langintzaren lanbidearen lana eta jarduna ezagutzeko tarte emango dugu, profesional askok ez baitute lan-esparru hori ezagutzen.

Espazio profesionaleko lanaren xedea, funtzioak eta esku-hartzeen garapena ezagutuko ditugu.

**+info**  
**Izen-ematea**

(\*)

## OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INSKRIPZIOEI, ORDAINKETARI ETA ITZULKETEI BURUZKO ARGIBIDE-OHARRAK:

- **Eman izena** eskainitako proposamen bakoitzerako emandako inprimakien bidez.
- Norbait erregistratu bada, baina azkenean izena emandako prestakuntzara joaterik ez badu, **prestakuntza hasi aurretik**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du prestakuntza egingo duen jendearen benetako datuak izateko eta gainerako pertsonei oztoporik ez jartzeko. Modu horretan, ikastaroa edo prestakuntza-jarduera benetan zenbat parte-hartzailek egingo duten jakingo da.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu prestakuntza **hasi baino lehen**, ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu ikastaroa **hasi ondoren**, EZ DA DIRURIK ITZULIKO.



FINANTZAKETA  
LAGUNTZA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
NAVARRA · NAFARROA

---

[www.trabajosocialnavarra.org](http://www.trabajosocialnavarra.org)

Irulanarrea kalea, 54 – behea • 31008 Pamplona • Iruñea Nafarroa / Tfifa.: 948 240 401